

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Zein funtsezko baliabide behar ditugu gure balio proposamena, banaketa kanalak, bezeroekiko harremanak eta diru-sarrera iturriak garatzeko?

Funtsezko baliabideak ukigarriak edo ukiezinak diren arabera lau taldetan sailka daitezke: baliabide fisikoak eta giza baliabideak (ukigarriak), eta baliabide intelektualak eta finantza-baliabideak.

Baliabide fisikoak: kasu honetan, hemen fabrikako instalakuntzak, eraikinak, makinak eta sistemak sartuko ditugu gure proiekturako.

Lehenik eta behin, garrantzitsua da esatea gure enpresakhasiera batean hegazkin bakarra sortuko duela, eta beraz diru sarrera guztiak hegazkin horren bidaietatik lortuko direla.

Honen bitartez diru asko lortzen ari garela konturatuko bagina, agian beste hegazkin batzuk eraikiko genituzke.

Hau esanda, baliabideei dagokienez, aipatzekoa da gure ideia ez dela hegazkina guk eraikitzea, beste enpresa bati erostea baizik; izan ere, gure ustez hegazkina guk sortuz diru-galera handiagoa izango genuke (langileen soldatak ordaindu, fabrikatzeko instalakuntza onak erosi...) guk erosiko bagenu baino.

Hegazkina lortu eta gerorako, ingeniari eta arkitekto lanak egiteko langileak beharko ditugu. Hauen eginkizunak hegazkina hobetzea, diseinu hobea ematea eta garrantzitsuena, segurtasun handiko hegazkina bilakatzea izango dira.

Ondoren, hegazkinaren barruko egitura diseinatu beharko dugu. Horretaz gu arduratuko gara eta lortu beharko ditugun gauzak ohe kapsulak, aulkiak, kafeterak eta janaria erosteko makinak izango dira.

Prozesu guzti hauek fabrika handi batean egingo ditugu; izan ere, hegazkina guk nahi dugun moduan moldatzeko leku espazioduna beharko dugu.



Giza baliabideak: enpresa guztiek behar dituzte baliabide hauek, nahiz eta negozio eredu batzuetan besteetan baino garrantzitsuagoak izan.

Gure enpresari dagokionez, esan daiteke ezagutza maila altua duten langileak beharko ditugula. Hegazkinak ezin baino hobeto funtziona dezan duen pisua, motorren indarrarekin alderatu beharko da, bestetik beste. Honetaz, gure langile ingeniari eta arkitektoak arduratuko dira. Diseinua ere kontuan hartzeko atala da gure enpresan. Gure proiektuaren publizitate on bat egiteko, hegazkinak kanpo eta barne diseinu ona eduki beharko du. Horretarako, sorkuntza alor handia duten diseinariak kontratatuko dira.

Baliabide intelektualak: baliabide intelektualen barruan markak edukiko duen balioa, egile-eskubideak eta bezeroen datu baseak egon daitezke, bestetik beste.

Nahiz eta baliabide-intelektualak lortzeko prozedura zaila izan, kasu honetan, gure enpresak edukiko duen baliabide-intelektuala INEI enpresaren markaren balioa izatea saiatuko gara.

Finantza-baliabideak: zenbait negozio eredu baliabide edo berme ekonomikoak (eskudirua, kreditu lerroak...) behar dituzte funtsezko langileak kontratatzeko. Gure enpresa ordea ez da finantza-baliabideetan oinarrituko; izan ere, guk nahiago dugu bezeroek gure hegazkina erabiltzea finantza-baliabideek hauek bultzatu gabe.

